



MONIKA DEL VALLE

Goian Kapanaga 1998an ARGIArako egindako elkarrizketan.

Bittor Kapanaga hil da

UZTAILAREN 14AN hil zen Gasteizen Bittor Kapanaga euskaltzalea,

85 urte zituela. Otxandion jaio zen 1925eko urriaren 15ean. Euskal kontzientzia hamahiru urterekin eskuratuta, Eibarrera joan zen industria-maisu ikasketak egitera, eta, bertan zela, 1952 inguruan, Eibarko gerraosteko euskal mugimendua sortu zuen beste zenbait euskaltzalerekin batera. 1953an *Euzko Gogoa* aldizkarian idazten hasi zen, eta, gero, *Zeruko Argian* eta beste hainbat argitalpenetan. 1978an *Euskera erro eta gara* liburua argitaratu zuen, gure hizkuntzaren erroen bila joanda. Gontzal Mendibilek sortutako *Arabian bagarre* kantaren letrak egin zituen Kapanagak.



ARGIA

Xabier Azanzak ez du Euskarabidean segiko

XABIER AZANZAK gutuna bidali die lau urteko ibilbidean harremana izan duen erakunde, eragile eta lan-kideei. Nafarroako euskara eremuko eragile batek ARGIAri adierazi dionez, Gobernu berriak kargutik kendu du Xabier Azanza. Dirudieenez, Euskarabidea erakundeak bere horretan segiko du eta litekeena da Azanzaren ordezkoa Maximino Gómez Serrano izatea. Hezkuntza Departamentuan egin du lan Gómezek eta bertako Euskara Zerbitzuko zuzendari izan zen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gure kutxek ondo eusten diote

Banku eta aurrezki kutxei Europar egindako erresistentzia proben emaitzak joan den astean jakin ziren, eta krisi eszenatoki baten aurrean, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxek maila ona dutela ziurtatu dute. Kaudimen handiena duten finantza entitateen artean kokatu dira. Kutxa, %10,3ko kaudimenarekin, Espainiako Estatuko kutxen artean hoberena izan da. BBK-k, Cajasur erosi eta gero handicap bat zuen arren, %8,8 lortu du; eta Vitalek %8,7. Banca Cívica-ren barruan dagoen CAN, burtsara aterata da aste honetan, eta Hego Euskal Herriko kutxen artean kaudimen gutxien erakutsi duena izan da, baina froga gaititu du, %5,6rekin hain zuzen. Kontuan eduki behar da erresistentzia test hauek ez dituztela aurreikusitako euskal entitateek kaudimen eza dagoenerako dituzten erreserbak eta probisioak. Horiek aintzat izanez gero, gure kutxen kaudimen kalifikazioa are handiagoa litzateke.

Gauzak horrela, ez da ulertzen kutxen arduradunek eta euren ordezkari politikoen zati handienak bankarizatzearen alde egitea. Bankarizatzearekin, Gizarte Ekinntza arriskuan jartzen da, kutxen egitekorik bereziena. Bankarizatzearekin, behin Kutxa Bank banku berria burtsara irtenda, planetako edozein inbertitzailek kontrolatu eta absorbitu dezake. Probetan erakutsi duten moduan, euskal kutxek hain kaudimen handia izanik, "mokadu" goxoa lirake munduko edozein lekutako espekulatzailerak eta inbertitzaileentzat.

Probek demostratu dute kutxa bakoitzak bananduta, hala nola guztiek batera, kaudimena dutela, euren funtzio soziala betetzen jarrai dezaketela, eta ez dutela kapitalizazio handiagoaren beharrik. Ondorioz, fusioaren alde egin eta Euskal Herrirako kutxa bakar, irmo eta indartsua sortzeko ordua da, bai eta bere bankarizatzea eragozteko ordua ere.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak erabili.com-en esanak:

"Espainiako Estatuak Euroituna orain dela hamar urte berretsi bazuen ere, oso urrun dago bertan jasotzen dena betetzetik, eta onartezina iruditzen zaigu Estatuan indarrean dagoen corpus juridikoa baino apalagoa den Euroituna bete ez izana. Horrek agerian uzten du geure hizkuntzaren normalizaziotik eta euskaraz bizitzeko dugun esku-bidetik urrun gauzkatela".

Bittor Hidakok [Garan](#) esanak:

"Gure politikariak jendaurrean beti euskaraz egitea hautatzen badu, hedabide guztiek euskarazko hitzak jaso beharko dizkiote beti, zuze-nean erakutsi nahi badute, nahiz gero bere hitzak itzuli beste zeinahi hizkuntzatara. Baina politikariak erakutsiko du, bagarela, ahal dugunean, euskaraz bizi nahi dugun herritarrek".